

2017KO AURREKONTUAK

HERRITARREN PROPOSAMENEN BILKETA

METODOLOGIA

Zertarako hartuko dut parte?

1. 2017an Ermuko herritarrentzat **lehentasunezko arloak** zeintzuk diren ezagutu nahi dugu.
2. Horrez gain, herritarren **proposamen zehatzak** jasoko ditugu lehentasunezko arlo horietan lan egiteko.

Bidalitako proposamenen bideragarritasuna aztertu ondoren, Udal gobernua erabakiko du zeintzuk jasoko dituen udal aurrekontuan.

Nork har dezake parte?

Edozein pertsonak, betiere, hurrengo baldintzak betetzen baditu:

- Ermuan erroldatua egotea
- 18 urte izatea

Prozesu honetan parte hartu ahal izateko, herritarrek izena, abizenak eta NAN zenbakia eman beharko dute.

Nola har dezaket parte? (1)

- Etxeko buzoian eta Abiapuntun utziko diren galdetegiak betez.
- Nahiago baduzu, web orrian duzun online galdetegia betez.

Galdetegiak bidaltzeko epea: **martxoaren 9tik 19ra**

Nola har dezaket parte? (2)

Paperean betetako galdetegiak hurrengo lekuetan utz daitezke:

- Abiapuntun, Lobianon, liburutegian eta kiroldegian jarritako postontzietan.

- Postetxean (ez da behar frankeorik)

- Data eta toki hauetan jarritako karpetan:
 - Martxoaren 9an eta 16an, osteguna, Patxi Plazan eta Santa Anan: 18etatik 20etara.

 - Martxoaren 10ean eta 17an, ostirala, San Pelayon eta San Lorentzon: 18etatik 20etara.



Zer egingo da jasotako proposamenekin?

1. Proposamenak teknikoki baloratuko dira eta erabaki bat hartuko da: kontuan hartuko dira, baztertu egingo dira, bestelako azterketen zain geldituko dira, edo beste momentu batean baloratuko dira.
2. Web orrian argitaratuko dira hartutako akordioak eta erabakien irizpideak eta oinarriak azalduko dira.

Kronograma eta lan egitasmoa:

2017ko otsaila

- Galdetegia sortu, paperean eta online.
- Prozesua aditzera eman eta ekarpenak egiteko epea zabaldu.

2017ko Martxoa- Apirila

- Herritarrengandik jasotako ekarpenak argitaratu.
- Proposamenen balorazio teknikoa egin, erabakiak hartu eta emaitzak argitaratu.
- Herritarren ekarpenen inguruan hartutako erabakiak argitaratu.